

4.1. Aurrekontu egonkortasunaren helburua

4.1. Objetivo de Estabilidad Presupuestaria

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN HELBURUA
OBJETIVO DE ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duenak, 48. artikuluan ezartzen du, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek beren eskumenak garatu eta betearazteko duten zerga- eta finantza-autonomiaren printzipioa eta Estatuarekin aurrekontu-egonkortasunaren arloan koordinazio-eta lankidetzaren printzipioa. Halaber, eranskin bereko 62.b) artikulua Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoari esleitzen dio "aurrekontu egonkortasunaren arloan lankidetzaren eta koordinazio-konpromisoak adostea".

Bestalde, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenak bigarren atalean ezartzen duenez, lege horretan xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeak ez du eragotziko Ekonomia Itunari buruzko Legearen xedatutakoa.

2022ko martxoaren 2an, Europako Batzordeak 2023rako aurrekontu-politikaren arloko orientabide orokorrak aurkeztu zituen, Errusiak Ukraina inbaditzearen testuinguruan eta horrek ekarri duen eragin negatiboa hazkunde aurreikuspenetan, azpimarratuz orientabideak egokitu egin behar direla inguruabarren bilakaera azkarrari erantzuteko. 2022ko maiatzaren 23an, Europako Batzordeak proposatu zuen Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren babes-klausula orokorra 2023an mantentzea, eta horrela onartu zen Ministro Kontseiluaren 2022ko uztailaren 26ko Erabakiaren bidez, arau fiskalak etetea erabaki zen, 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldietarako lehenago egin zen bezala.

Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko 2022ko irailaren 28ko akordioaren bidez, 2023. Urterako aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak adostu dira. Horrela, defizitaren eta zor publikoaren helburu espezifikoak ezarri dituzte Erakunde Erkideentzat, bai eta defizitaren helburu bateratua ere, foru-aldundien kasuan.

Zerga-arauak bertan behera uzteak egonkortasun-bidea etetea dakar; beraz, euskal erakundeentzat onartutako defizit- eta zor-helburuak erreferentziazko tasatzat har daitezke, 2023. ekitaldian arrunta ahalbidetzeko.

La Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su artículo 48 establece, entre otros, el principio de autonomía fiscal y financiera de las instituciones del País Vasco para el desarrollo y ejecución de sus competencias y el principio de coordinación y colaboración con el Estado en materia de estabilidad presupuestaria. Asimismo, en el artículo 62.b) del mismo Anexo asigna a la Comisión Mixta del Concierto Económico la función de "acordar los compromisos de colaboración y coordinación en materia de estabilidad presupuestaria".

Por otro lado, la Disposición final tercera de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, establece en su apartado segundo que, en virtud de su régimen foral, la aplicación a la Comunidad Autónoma del País Vasco de lo dispuesto en esa Ley se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley del Concierto Económico.

El 2 de marzo de 2022, la Comisión Europea presentó las orientaciones generales en materia de política presupuestaria para 2023, en el contexto de la invasión de Ucrania por parte de Rusia con la consecuente repercusión negativa en las perspectivas de crecimiento, subrayando la necesidad de una adaptación de las orientaciones en respuesta a la rápida evolución de las circunstancias. El 23 de mayo de 2022, la Comisión Europea propone que la cláusula general de salvaguardia del Pacto de Estabilidad y Crecimiento se mantenga en 2023, y así se ha aprobado por Acuerdo de Consejo de Ministros de 26 de julio de 2022, suspendiendo las reglas fiscales al igual que se hizo anteriormente para los ejercicios 2020, 2021 y 2022.

Mediante acuerdo entre la Administración del Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco, el 28 de septiembre de 2022, se han acordado los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera para el año 2023, estableciendo objetivos específicos de déficit y deuda pública para las Instituciones Comunes y un objetivo de déficit conjunto en el caso de las Diputaciones Forales.

La suspensión de las reglas fiscales conlleva suspender la senda de estabilidad, de forma que los objetivos de déficit y deuda aprobados para las instituciones vascas pueden considerarse tasas de referencia que permitan el funcionamiento presupuestario ordinario del ejercicio 2023.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 28.1 artikulua b) letraren arabera, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari dagokio euskal sektore publikoaren ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-jarduerarekin zerikusia duen edozein gairi buruzko proposamenak aztertzea eta egitea Jaurlaritzari eta foru aldundiei, baldin eta, Kontseiluaren iritziz, jardun koordinatua behar badute.

Horregatik guztiagatik, Foru Aldundien Baliabideak Banatzeko eta Ekarpinak Zehazteko Metodologiari buruzko martxoaren 23ko 2/2007 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorritik, 1. atalean ezartzen baitu Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen aurrekontu-egonkortasuneko helburuak adostuko dituela, Euskal Autonomia Erkidegorako hartzen diren konpromisoen esparruan, Ekonomia Itunaren 62. artikuluan aurreikusitakoa jarraiki, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak urriaren 14ko bileran foru aldundien aurrekontu egonkortasuneko helburua onetsi zuen 2023. urterako:

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN HELBURUA

Finantzatzeko gaitasuna (+) beharra (-),
SEC-2010

(EAEko BPGren ehunekoan)

De acuerdo a la letra b del artículo 28.1 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, corresponde al Consejo Vasco de Finanzas Públicas el estudio y formulación de propuestas al Gobierno y a las Diputaciones Forales sobre cualquier materia relacionada con la actividad económica, financiera y presupuestaria del sector público vasco que, a juicio del Consejo, precise de una actuación coordinada.

Por todo ello, y de conformidad con la Disposición Adicional Segunda de la Ley 2/2007, de 23 de marzo, de Metodología de Distribución de Recursos y de Determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales, que en su apartado 1 establece que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordará los objetivos de estabilidad presupuestaria de las instituciones públicas del País Vasco, en el marco de los compromisos que para la Comunidad Autónoma del País Vasco se adopten en aplicación de lo previsto en el artículo 62 del Concerto Económico, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas en reunión de 14 de octubre aprobó el objetivo de estabilidad presupuestaria de las Diputaciones Forales para el año 2023:

OBJETIVO DE ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA

Capacidad (+) Necesidad (-) de financiación,
SEC-2010

(En porcentaje del PIB de la CAPV)

2023
-0,1

Foru aldundien baterako defizit helburuaren lurralde-banaketa 2023. urterako ekitaldietarako onartutako ekarpen-koefiziente horizontalen arabera egingo da.

Foru-aldundien epe luzeko zorpetzea bat etorriko da ekitaldi bakoitzerako onartutako defizit-helburuarekin.

Ministroen Kontseiluaren 2022ko uztailaren 26ko erabakiaren bidez zerga-arauak eten ondoren, adostutako defizit-helburu hori 2023 ekitaldirako erreferentzia-tasatzat hartuko da.

La distribución territorial del objetivo de déficit conjunto de las Diputaciones Forales se realizará en base a los coeficientes horizontales de aportación aprobados para el ejercicio 2023.

El endeudamiento a largo plazo de las Diputaciones Forales será coherente con el objetivo de déficit aprobado para cada ejercicio.

Tras la suspensión de las reglas fiscales mediante acuerdo de Consejo de Ministros de 26 de julio de 2022, este objetivo de déficit acordado se considerará tasa de referencia para el ejercicio 2023